# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

### 1080

*14/2022 EBAZPENA, otsailaren 18koa, Gorlizko Ospitaleko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Pedro Ignacio Tejada Ezquerro jauna izendatzen den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gorlizko Ospitaleko Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko Zerbitzu Sanitarioko buru, aldi baterako, lau urte luzagarriz.*

Gorlizko Ospitaleko zuzendari-gerentearen abuztuaren 24ko 74/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Gorlizko Ospitaleko Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2021eko urriaren 5eko EHAA 199. zk. eta 2021eko urriaren 12ko BOE 244. zk.).

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Pedro Ignacio Tejada Ezquerro jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori izendatzea Osakidetzako Gorlizko Ospitaleko Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko Zerbitzu Sanitarioko buru.

Beraz, bat etorriz Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluaren hirugarren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Pedro Ignacio Tejada Ezquerro jauna Osakidetzako Gorlizko Ospitaleko Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko Zerbitzu Sanitarioko buru izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluaren hirugarren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta egun honetatik aurrera izango ditu ondorioak: 2022ko martxoaren 1.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ezpada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat jazotzen dela eta, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldez aurretik kontrako espedientea dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluaren 6. apartatuan aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Interesdunari Ebazpen honen berri ematea.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Gorliz, 2022ko otsailaren 18a.

Gorlizko Ospitaleko zuzendari-gerentea,
CARMEN RODRIGUEZ RODRIGUEZ.